




**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

# MEMORIA

**2018/2019 IKASTURTEA**

[www.mondragon.edu/huhezi](http://www.mondragon.edu/huhezi)





# AURKIBIDEA

---

## 1. SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

4

## 2. TXOSTEN AKADEMIKOA

14

- GRADUAK

14

- GRADUONDOKOAK ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

17

- IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

19

## 3. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

24

## 4. KUDEAKETA-ORGANOAK

25

## 5. HUHEZIKO LANGILEAK

26

# SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

---

IKASLEAK:  
AURREZ  
AURREKO  
GRADU  
IKASKETETAN  
+ ONLINE  
MODALITATEAN

**1.096**

2018-2019 ikasturtean zehar, gogotsu ekin diogu gure estrategiari Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) parte hartzen dugun guztiok. Berriro ere, partaidetza zabal eta irekiaren aldeko apustua egin dugu: estrategia aurrera ateratzeko, hainbat ekintza eta espazio ireki ditugu. HUHEZI osatzen duten komunitateek eta hainbat interes taldek parte hartzeko gune berriak sortu dira. Ardatz estrategikoetatik abiatuta, irakaskuntzako jardueren berrikuntzan bide egiten jarraitu dugu; baita profesionalen prestakuntza-jardueretan eta I+T jardueretan ere. Hori guztia lortzeko, pertsonen garapen profesionala bultzatzea funtsezkoa izan da, horrek identitate kooperatiboa bultzatzen duen heinean.

Gure plan estrategikoan finkatutako mugarriari jarraituz, unibertsitatea bizitzeko espazio berriak eraikitzen hasi gara 2018-2019 ikasturtean; betiere, ikaslearen campuseko bizipena (bertatik bertarakoa edo birtuala) birsortzeko asmoarekin zein langileen ongizatea ziurtatzeko helburuarekin.

**2018-2019 ikasturteko datu eta gertakizun nabarmenenak jasoko ditugu honako lerro hauetan:**

Arlo akademikoari dagokionez, aurrez aurreko gradu-ikasketetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Ikus-entzunezko Komunikazioan 901 ikasle izan ditugu guztira.

Aurrez aurreko graduaz edo gradu presentzialaz gain, berriro ere egokitzapen-ikastaroak eskaini dira blended modalitatean (aurrez diplomadunak direnei gradu-titulua lortzeko aukera ematen zaie). 12 ikasle izan ditugu guztira. Bestalde, bigarren gradua edo aipamena eta gradu osoa online egiteko aukera eskaini da ikasturte honetan. Bigarren graduan / aipamenean guztira 103 ikasle izan ditugu, eta online graduan 80 ikasle. Online modalitatean, beraz, 195 ikasle izan ditugu guztira.

Graduak aurrez aurrekoak eta blended modalitatekoak kontuan harturik, 1.096 ikasle izan ditugu guztira.



Graduondoko ofizialen arloan, 2018-2019 ikasturtean hiru master ofizial eskaini dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra, Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate-masterra (EKOMU) eta Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan unibertsitate-masterra (BERRIMET).

Graduondoko ikasleak (master ofizialetan nahiz titulu propioetan) 231 izan dira guztira. Hiru unibertsitate-master ofizial eta bost aditu-titulu eskaini dira.

Ikasleen mugikortasunari dagokionez, 126 ikasle joan dira atzerrira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera. Horietatik 47 Europara joan dira, 49 Latinoamerikara eta 30 Espainiako estatura.

Atzerriko 19 ikasle izan dira gurean ingelesezko mugikortasun-programetan.

Bestalde, etengabeko prestakuntzaren arloan ere hainbat lan egin dira Hezkuntza, Komunikazio eta Kooperatibismo arloan. Aipatzekoa da LANKI ikertegian eskainitako prestakuntza kooperatiboan 54

formakuntza-saio egin direla (918 parte-hartzaileekin). Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeetatik etorritako eskaerari erantzun zaio, eta 1.256 pertsonak hartu dute parte programa horietan. Eta, ikus-entzunezko komunikazioaren eremuan, Adobe Premier-en inguruko ikastaroa antolatu da Ulma Handling Systems kooperatibarentzat.

Ikerketaren arloan, ikertzaileen parte-hartzea handia izan da jardunaldi eta kongresuetan, eta argitalpenen arloan ere esan dezakegu emaitza oparoa dela. Horrela, 51 artikulua argitaratu dira (horietatik 38 inpaktu altuko eta ertaineko zerrendetako aldizkarietan), 5 liburu oso, 6 liburu-kapitulu, 9 dibulgazio-artikulu ere publikatu dituzte ikertzaileek aurten. 21 ikerketa-proiektutan parte hartu dugu, eta 43 transferentzia-ekimen gauzatu dira erakunde publiko eta pribatuetan. Horrez gain, 15 ikerketa-jardunaldi antolatu dira, eta gizarteko 43 zabalkunde- edo dibulgazio-ekintzatan parte hartu dugu.

Tesiak egiteko aurreko urteetan izandako liberatze-politikak emaitza onak eman ditu; HUHEZIn dagoeneko 45 doktore ditugu (irakasle-ikertzaileen % 49,50), eta horietatik 31 akreditatuta daude (% 69). Horrez gain, 24 lankide doktore izateko bidean daude.

GRADU  
ONDOKO  
IKASLEAK

**231**



HUHEZI Koop. E.-ren helburua gure komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesionala bermatzea da. Ezberdinen arteko lankidetzeta eta osagarritasuna dugu helburu. Pertsonen garapenerako markoari dagokionez, HUHEZIn:

**1. Harrera-plan sendoa eskaini diegu langile berriei.**

**2. Gaikuntza-planak eta proiektu estrategikoak lerrokatu ditugu.**

**3. Hizkuntza-gaitasunak bultzatzeko eskaintza sendoarekin jarraitu dugu.**

**4. Norberaren garapenerako ad hoc eskaerak indartu dira.**

**5. Langile doktoregai ikertzaileen eta ikertaldeen garapena bermatzeko epe luzeko proiektzioa eta gaikuntza-plana gauzatu ditugu (doktorego-programa eta tesi-liberazioak).**

**6. PIF politika berria martxan jarri dugu.**

2018-19 ikasturtean, HUHEZIn 2016-2020 Plan Estrategikoaren garapenera loturik, hezkuntzaren digitalizatorako laborategiaren proiektua sortu da. Hausnarketa-prozesu anitzetan ikusi da hezkuntzak bizi dituen aldaketen aurrean ezagutza berria garatu eta ikertuko duen taldeak behar direla. Aldaketa horien artean, digitalizazioak indarra azken urteotan hartu du, eta, ondorioz, HUHEZIn, digitalizazioarekin lotutako berrikuntza pedagogikoa eta ikerketa sustatu eta uztartuko dituen espazio baten beharra identifikatu zen. Hezkuntzaz gain, Komunikazioa ere bada gizarte digitaleko giltzarri eta etorkizuneko gako. Hori dela eta, hezkuntzaren eta komunikazioaren laborategi baten forma hartu du KoLaborategiak.

KoLaborategia, beraz, gizartearen (er)aldaketaren barruan digitalizazioak hezkuntzan eta komunikazioan duen rola ikertzen eta esperimendatzen duen laborategia da. Hausnartuz, etorkizuna sortuz eta aukera berriei espazioak irekiz eta berrikuntza-prozesuak azeleratuz (ikertuz eta aholkularitza-formazioa eskainiz). Hezkuntzako zein gizarteko eragileekin (Ko)Laboratuz. Gizarte digitalerako hezkuntzaren eta komunikazioaren laborategiak

etorkizuneko joerak ere identifikatzen ditu, eta nazioarteko begirada bat dakar.

2018-2019 ikasturtean, langileen parte-hartzea bultzatzeaz gain, ikasleen parte-hartzea bultzatu nahi izan dugu. Euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko helburuz, hainbat kultura-ekimen egin dira (Euskararen Eguneko ekitaldiak, Txomin Txapel eta Buatxabalta eguneko ekintzak, ikasturte bukaerako ikuskizuna, besteak beste).

Bestalde, HUHEZINEMaren XII. edizioa antolatu da, eta azken urteetako arrakastari eutsi dio aurkeztutako filmen eta jaialdira etorritako gonbidatuen kopuruari dagokionez. Hiru egunetan zehar (apirilak 2-5) Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradu 4. mailako ikasleek ekitaldi ugari antolatu dituzte, hala nola proiektzioak, mahai-inguruak, kartelen erakusketa eta master class-ak. Hedabideetan izandako oihartzuna berriro ere bikaina izan da.

Zabalkundea bultzatzeko eta gure lana gizarteratzeko, zenbait topaketa antolatu dira ikasturtean zehar:

Maiatzaren 15ean, Hezkuntza Berrikuntza jardunaldiaren 5. edizioa egin zen Eskoriatzako campusean: «Irakasle izatetik erraztaile izatera» lelopean, egungo hezkuntzan ezinbestekoa den «erraztaile» rola izan zen hizpide. Bi ponentzia aurkeztu ziren. Batetik, Carlos Magro adituaren eskutik: «Aprendizaje colaborativo y experiencial: reflexión sobre los nuevos roles para el aprendizaje». Bestetik, Eugenio Astigarraga Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileak etorkizuneko erronkez jardun zuen: «Hezkuntza garai aldakorretan». Horrez gain, Euskal Herriko hezkuntza-eragileekin batera, hausnarketa parte-hartzailea gidatu zuen Carlos Magrok. Hezkuntza-arloko 90 profesionalak eman zuten izena jardunaldian.

Barnekotasuna izan genuen hizpide maiatzaren 31n: gizakiaren garapen integralaren gakoan inguruko gogoeta-saioa antolatu genuen. «Barnekotasunaren lanketa eskolan» gaia jorratzeko, bi aditu etorri ziren Eskoriatzara: Xabier Melloni eta Berta Menese. Lehenak barnekotasunak hezkuntzan duen garrantzia landu zuen, eta bigarrenak haur eta gazteekin 25 urteotan izandako esperientziak partekatu zituen.

Mondragon Unibertsitateko LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak urtero antolatzen duen Kooperatibagintza Topaketen VII. edizioa egin zen Arantzazun, Oñatin, Gerediaga aretoan: «Pertsonen arteko lankidetzaren erakundeetan». Héctor Marín Manrique, Zaragozako Unibertsitateko ikertzailea, Rafael Wittek Groningeneko Unibertsitateko irakaslea eta Ion Lezeta (HUHEZlko ikertzailea) izan genituen hizlari. Bugui García erraztaile sistemikoak gidatutako dinamika parte-hartzailea ere eskaini zen.

Osasuna eta zaintza bultzatzeko, kirol-eskaintza zabala eskaintzen jarraitu dugu. Zerbitzuaren ildo estrategiko nagusiak «osasuna sustatzea» izaten jarraitu du, irteerak, ikastaroak, kirola, lehiaketa eta aisialdiko jarduerak albo batera utzi gabe. HUHEZlko Kirol Zerbitzuak 309 erabiltzaile izan ditu 2018-19 ikasturtean.

# AIPAMEN HISTORIKOA

## IKUSPEGI KRONOLOGIKOA

---

✿**1976. Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zen.** Ikastolek garai hartan zuten arazo larria (ez baitzen irakasle tituludun euskaldunik) konpondu guran, Hezibide Elkarrekin Debagoieneko hezkuntza-kooperatibak batzen zituen elkarrekin, alegia Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zuen. Hasiera hartan, Salamancako Unibertsitate Pontifizioaren ikasgela moduan hasi zen eskolak ematen.

✿**1978. Onespen ofiziala.** Hezkuntza Ministerioak onartu egin zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketak-plana, aurrerantzean Bilboko Unibertsitateari (gero EHU/UPV) atxikita.

✿**1979. Lehen promozioa.** 39 irakasle irten ziren urte hartan, irakasle-diploma eskuan.

✿**1980. Irakasle Eskola, kooperatiba.** Bere ingurunean txertaturik, urrats logikoa izan zen eskola kooperatiba bihurtzea.

✿**1981. Titulurik gabeko irakasleen 1. promozioa.** Ikastoletan edo herri-eskoletan euskaraz irakasle-titulu barik ari ziren 147 maisu-maistrak eskuratu zuten titulu urte hartan. Guztira, titulu bako 700 maisu-maistrak amaitu zituzten ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

✿**1984. Haurren gaineko dokumentazio-zentroa.** Sei urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen hasi zen Eskola. Geroago, Jakingarriak aldizkaria argitaratzen hasi zen, gai horren inguruan.

✿**1985. Irakasleen birziklatze-programa.** Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera, lanean ari ziren irakasleak egunean jartzeko ikastaroak antolatzen hasi zen Eskola.

✿**1988. Bideo didaktikoak.** Helburu didaktikoekin egindako bideo-bilduma baten lehen alea («Piti gaztagile») argitaratu zen.

✿**1990. Euskararen normalizazioa Administrazioan.** Ikastaro bereziak antolatu ziren euskal administrazioari funtzionarioen hizkuntza-eskakizunak jasoenak lantzeko.

✿**1992. Eskola-liburugintza.** Euskarazko irakaskuntzan eskola-liburuak behar zirela-eta, dozena bat liburu argitaratu ziren.

✿**1996. Hezkuntza Berezia.** Hezkuntza-premia bereziak zituzten haurrei irakasteko espezialitatea sortu zen. Eskola ikaslez urri zebilen garaian, ikasle asko erakarri zituen espezialitate honek.

✿**1997. MUren Humanitate Fakultatea.** Eskoriatzako Irakasle Eskola Mondragon Unibertsitatearen (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen. **Humanitateak-Enpresa lizentzia ematen hasi zen.**

✿**1999. Eraikin berria.** Hasierako eraikina txiki geratu zela-eta, Gizabidea fundazioak alboko S. Viator eraikina (XVII. mendekoa) erosi zuen Humanitateen Fakultatea bertan jartzeko.



**Lehen masterra.** «Enpresa Proiektuen Zuzendaritza» izeneko masterra sortu zen. 400 bat hautagai aurkeztu ziren, baina 20 bakarrik sartu ziren, galbaha zorrotza igaro ostean.

✳️**2000. Psikopedagogia-lizentzia.** Bigarren zikloko lizentzia zen, eta irakaskuntza eta gizarte eleaniztunetan sor daitezkeen arazoei hobeto erantzuteko sortu zen. Lehen urtean 33 ikasle izan zituen.

✳️**2001. Ikasketak, online.** Psikopedagogia-ikasketak eta master bat sarean jarri ziren.

**Humanitateak-Enpresako 1. promozioa** ekainean irten zen.

**Bi master berriren eskaintza:** Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien prestakuntzan eta Hezkuntza Zuzendaritzan.

**LANKI sortuzen, MUko Lankidetzaren Ikertegia.** Hiru esparru nagusi izan zituen hasieratik: kooperatibismoa, gizartearen esku-hartzea eta garapenerako lankidetzak.

**«Esperientzia Komunitarioen Truke Programa»:** lehen edizioa antolatu zen Hego hemisferioko komunitateen eta Euskal Herriko eragile kooperatibo eta autoeratuaren artean.

Lankidetzak: Arizmendiarrietaren eraldaketa-proiektua liburua argitaratu zen. **LANKI ikertegiaren lehen argitalpena** izan zen; ordutik aurrera, hainbat argitalpen eta material didaktiko sortu da kooperatibismoaz eta gizartearen erronkez.

✳️**2002.** Psikopedagogia karreraren barruan **Esku-hartze Psikopedagogia** jarri zen abian, 30en bat ikaslerekin.





**Mundukideren interkooperazio-sistemaren** garapenaren bultzatzaile izan zen LANKI ikertegia.

✿ **2003. AOI-PBL metodologia** ezartzen hasi zen sistematikoki 1. mailan, Haur Hezkuntzan oso-osorik, eta bestelako espezialitateetan ikasgai komunetan soilik.

**Hezkuntza fisikoa.** Irakasle-ikasketetako espezialitate berria hasi zen, 32 ikaslerekin.

✿ **2004. Pertsona- eta talde-garapenerako gestio-unitatea** sortu zen.

**Prestakuntza pedagogikoa** titulazioa ezarri zen.

**Irakasle balioaniztuna** izeneko ikasketak eskaintzen hasi zen.

✿ **2005. Ikus-entzunezko Komunikazioan** lizentzia sortu zen. Karrera honen misio edo eginkizuna komunikatzaile integralak prestatzea da. Lana edonon egiten dutela ere, gai izango dira erakunde horretako era guztietako komunikazio-

beharrei erantzuteko. 36 ikaslerekin jarri zen abian lehenengo maila.

«**Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren zentzuaren gaineko gogoeta-prozesua**» egin zen kooperatibetan. Prozesu haren garapenean, LANKI eragile funtsezkoa izan zen. Diagnostiko hartatik abiatuta, eta 2007an MONDRAGON Taldearen Kongresu Kooperatiboan berretsita, azken urteotan kooperatibak biziberritzeko hainbat estrategia jarri dira martxan.

Urte berean, «**Norbere garapena eta taldeen lidergoa**» izeneko aditu-titulua ezarri zen.

✿ **2006.** Irakasle-ikasketetan, **Mendeberrri proiektuaren 1. promozioa** kaleratu zen.

«**Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna XXI. mendean**» ikastaroa eskaini zen.

**Abian** jarri ziren **Euskara Plana** eta **Multimedia gunea**.



**Garabide elkartean** sorreran parte hartu zen LANKIren bidez. Euskal Herrian gauzatutako hizkuntzen berreskurapenerako estrategiak eta esperientzia Hegoaldeko herri indigenekin partekatzeke plataforma da.

✿**2007. «Euskal Kulturgintzaren Transmisioa»** graduondokoa eskaini zen.

**HUHEZINEMA**ren lehen edizioa egin zen.

HUHEZIKo programako **lehen tesia** aurkeztu zen.

**Hezkuntza Kooperatibo Eredu berriaren** diseinua eta inplementazioa hasi zuen LANKIK MONDRAGONeko Gestio Sozialarekin lankidetzan. Harrezkero, prestakuntza kooperatiborako prozesu zabalak ireki dira MONDRAGON Taldeko kooperatibetan.

LANKIK, Mundukiderekin batera, elkarlana abiatu zuen Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimendurekin (**MST**).

Lehenengo Erasmus ikasleak etorri ziren, sei hilabetez, HUHEZIn ikastera.

✿**2008. «Ikus-entzunezko Komunikazioa»** lizentziaturaren 1. promozioa atera zen.

ANECAK **Haur Hezkuntzan Gradua, Lehen Hezkuntzan Gradua** eta Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua onartu zizkion HUHEZlri.

HUHEZIK **Urrezko Bikain** ziurtagiria lortu zuen.

**«Kooperatibagintza» aditu-tituluaren** lehen edizioa eskaini zen, kooperatibetako eragileak prestatzeko eta kooperatibak biziberritzeko estrategietan eragiteko bokazioz.

✿**2009. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra eta Ekonomia Solidarioaren masterra** eskaintzen hasi ginen.

ANECAK **Hezkuntza Testuinguru Multikultural**

**eta Eleaniztunetan** unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) **eta Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan** unibertsitate-master ofiziala (**BERRIMET**) onartu zizkion HUHEZlri.

Boloniara egokitutako **Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa** graduen inplementazioa.

**Bagara** prozesuaren sorrera bultzatu zen LANKlren bidez. Prozesu honen xedea Debagoiengan garapen komunitario autoeratu bultzatzea da.

✳️**2010. Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan** unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) **eta Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan** unibertsitate-master ofiziala (BERRIMET) eskaintzen hasi ginen.

**Ekonomia solidarioari buruzko masterraren** lehen edizioa egin zen, Latinoamerikako garapen sozioekonomikoko esperientzia autoeratuari zuzendua.

**MU Telebista** sortu genuen.

✳️**2011. «Jatorrizko hizkuntzen eta identitateen berreskurapenerako» aditu-titulua** martxan jarri zen, munduko komunitate indigenentzat.

✳️**2012.** Vic-eko Unibertsitateak eta HUHEZIK eskainiko dugun **«Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan» doktorego-programa onartu ziguten** UNIBASQek eta ANECAk.

**Aretxabaletako campus berriko** obrak egin ziren.

**«Komunikazioa erakundeetan» aditu-titulua** eskaintzen hasi ginen.



✿**2013.** HUHEZlren **Aretxabaletako campus berriaren eraikina inauguratu zen.**

Vic-eko Unibertsitatearekin batera, **«Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan» doktorego-programa** eskaintzen hasi ginen.

**Blended modalitatean egokitze-ikastaroak** eskaintzen hasi ginen, diplomadunek graduako titulua lortu ahal izateko.

**Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak blended modalitatean** eskaintzea onartu ziguten UNIBASQek eta ANECAK.

Oñatiko Enpresagintza Fakultatearekin batera eskaintzen dugun **«Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa» (MCOOP) unibertsitate-master ofiziala** onartu ziguten UNIBASQek eta ANECAK.

✿**2014.** Lehenengoz eskaini zen **gradu osoa edo bigarren titulazio bat online modalitatean** egiteko aukera.

Enpresagintza Fakultatearekin batera, lehenengoz eskaini zen **«Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa» (MCOOP) master ofiziala.**

**Bigarren Hezkuntzako masterraren kanpo-akreditazioa** lortu zen UNIBASQen.

**HUHEZlko barne kalitate-sistemaren kanpo-akreditazioa** lortu zen UNIBASQen.

✿**2014-2015** ikasturtetik hasita, **dekano berria** aukeratzeak **zuzendaritza-talde berria** eta **antolaketa berria** ere ekarri zituen.

✿**2015-2016 ikasturtean plan estrategiko berria** diseinatu genuen **prozesu parte-hartzaile batekin.** Plan Estrategikoan berrikuntza-premia berretsi zen kolektiboan, bai arlo akademikoan, bai ikerketan eta transferentzian, eta 10 proiektu identifikatu ziren.

**Ikus-entzunezko Komunikazioa graduoko berrikuntza metodologikoa** inplementatzen hasi ginen.

**BERRIMET eta EKOMU masterren kanpo-akreditazioak** lortu ziren UNIBASQen.

✿**2016-2017** ikasturtean **Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa** graduen akreditazioak lortu ziren UNIBASQen.

**40 urte** bete zituen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. 2016-2017 ikasturtean zehar ekingintza ugari antolatu ziren urteurrena ospatzeko.

✿**2017-2018** ikasturtean, **proiektu arkitektoniko berriaren diseinuari heldu** genion. Campusaren diseinuan parte hartu zuten Fakultateko langileek eta ikasleek.

✿**2018-2019** ikasturtetik hasita, **KoLaborategia proiektua martxan** dago. Hezkuntzan eta Komunikazioan estrategia digitala bultzatzeko asmoarekin, lantaldea osatu da, eta lehenengo proiektuak abiatu dira; buletin elektronikoa, besteak beste.

**HUHEZlko Plan Estrategikoan** (2016-2020) jasota geratu zen aldi estrategikoan gradu berri bat diseinatzeko konpromisoa. Hainbat iturritatik edanez (azken urteetan atzerriko unibertsitateetara egindako bisitak, gizartearen irakurketa, adituekin egindako kontrastea, HUHEZlren indarguneak eta etorkizunerako ildoak), gradu berri bat definitu da: **Humanitate Digital Globalak (HDG).**

2020-2021 ikasturtean, Humanitate Digital Globalak gradua Bilbon, Zorrotzaurren, eskaintzeko apustua egin da.

Dorletako obrak maiatzean abiatu dira.

# TXOSTEN AKADEMIKOA

---

## GRADUAK

---

2018-2019 ikasturtean, aurrez aurreko 193 ikasle berri izan ditugu Hezkuntzako graduetan; horietatik 66 Haur Hezkuntzako graduari eta 127 Lehen Hezkuntzakoan (bi talde egon dira Haur Hezkuntzan eta lau talde Lehen Hezkuntzan). Bestalde, Ikusentzunezko Komunikazioko (IKO) graduari 46 ikasle berri jaso ditugu 1. mailan (eta zenbait lan-sekuentziaz banatu dira taldeak). Era berean, graduaren ikasketa-plangintzaren barruan prestatutako irakasle eta komunikatzaileen seigarren promozioa atera da HUHEZItik.

Graduaren berrikuntza-prozesuarekin jarraitu da. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, 2. mailan inplementazioa egin da eskaintza presentziaz, eta, erdipresentziaz, berriz, 4. mailaraino iritsi gara. IKOri dagokionez, 2017-2018 ikasturtean jada 4. mailan inplementatu ondoren, 2018-2019an, Mendeberrirako 2025 ereduaren diseinu eta inplementazioan jardun da.

Urte garrantzitsua izan da, MDB2025 ereduak bultzada handia izan baitu. Errektoretzak gidatuta, MENDEBERRI 2025 taldean lau azpitalde eratu dira, MUko lau fakultateetako ordezkariekin. MDB proiektuaren alderdi makro komunak eraikitzeko xedez sortu dira taldeak. Honako lau talde hauek, zehazki:

- Ebaluazioaren markorako taldea.
- Sistema berrietarako taldea.

- Curriculum-egituraren markorako taldea.
- Konpetentzia eta ikaste-emaitzen markorako taldea.

HUHEZItik Talde Eragileak, IKO eta Hezkuntzako kideek osatua, marko horien apropiazioa eta lanketa bideratu du, Fakultatera begira eta MDB2025eko taldearekin batera, eta, modu honetan, elkarlana eta kontrastea bideratu dira. Talde Eragileko kideek MDB2025eko lau taldeetan parte hartu dute.

HUHEZIn, ezaugarri pertsonalekin lanean jarraitu da. Ikasturtearen hasieratik eta abendura bitartean, eraiki nahi diren ezaugarri pertsonalak erdiesteko «curriculum-ezaugarri»en lanketa egin da: 10 ezaugarri definitu dira. Era berean, ezaugarri pertsonalen eta curriculum-ezaugarrien mapaketa bukatu eta ikasketa-planera jaitsi da. Modu honetan, IKOn eta Hezkuntzan ikasketa-plan berriaren diseinu globala egin da. Era berean, hizkuntza-proiektu berria ere sortu da, pertsona oinarrian hartuta.

Graduaren prototipo berria martxan jartzeko diseinuak abiatu dira 3. mailako 1. moduluko taldearekin (Hezkuntzan) eta 1. mailako 1. modulurekin (IKOn). Prototipo berrian, ebaluazio-marko berria ez ezik, ezaugarri pertsonalak ere txertatuko dira. Horretarako, diseinu-eredu bat sortu da Talde Eragilean, eta diseinu-taldeak aktibatuta. Diseinutalde horien bidez ere bideratu da berrikuntzaren sozializazioa eta jabetasuna.

Orobat, irakasleen prestakuntzari dagokionez, tutoretzan formakuntza sendoa jaso dute zenbait irakaslek; baita sormenaren, ebaluazioaren eta diziplinartekotasunaren lanketaren ingurukoa ere.

Garrantzitsua da aipatzea Hezkuntzako 1. eta 2. maietan ikasturte bukaeran egin den ebaluazioa, MKT foroetan. Berrikuntzaren alderdi positiboak eta erronkak definitu dira. Era berean, ebaluazio-ereduaren azterketa bat egin da Xavier Carreraren eskutik (18 irakasle elkarrizketatu, besteak beste), eta horrek ekarri du ebaluazio-ereduan doiketak egitea.

Era berean, MUko fakultateen ikasleen arteko interakzioa eta ikaste-esperientzia diziplinartekoak bizitzeko aukera zabaldu zen, ChangeMakerLab proiektuaren bidez. HUHEZIKo 2 ikaslek hartu dute parte, biak ere IKOkoak.

Ikasleen onarpen-probari dagokionez, hirugarren urtez jarri da martxan proba, eta urtean zehar 3 alditan egin da. Probari zenbait elementu berri erantsi zai-zkio. Onarpen-probaren bidez, ikaslegaiak HUHEZIKo hezkuntza-eredua probatzeko aukera du matrikulazioaren aurretik, eta uste dugu ikasleari bere erabakia funtsatzen laguntzen diola.

Mugikortasun-programaren inguruko interesa areagotuz doa, eta 2018-2019 ikasturtean 145 ikasle joan edo etorri dira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera, bi norabideetan: HUHEZItik kanpora (126 ikasle) eta kanpotik HUHEZIkra (19 ikasle). Kanpora joan diren ikasleetatik 46 beste unibertsitate batera joan dira ikastera, eta 80 eskolotara eta erakundetara. Norakoari dagokionez, Europara joan dira 47 ikasle, Latinoamerikara 49 eta Espainiako estatura 30. Mugikortasuna sustatzeko, akordioak ditugu Europako 65 unibertsitaterekin eta 26 eskolarekin, eta Latinoamerikako 3 unibertsitaterekin eta hainbat eskola eta erakunderekin. Estatuko ikuspegiari dagokionez, 2018-2019 ikasturtean 27 ikasle joan dira praktikak egitera Andaluzia, Katalunia, Madril eta

Kanariar Uharteetara, batik bat. Bestalde, Vic-eko Unibertsitatera 3 ikasle joan dira SICUE programa egitera. Azkenik, hiru graduatan eskaintzen ditugun nazioarteko programetara 19 ikasle etorri dira 30 ECTSko seihileko bat egitera, ingelesez, gure ikasleekin batera.

Euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko helburuz, hainbat kultura-ekimen antolatu ziren (Euskararen Eguneko ekitaldiak, Txomin Txapel eguneko emanaldia). Jada ekimen klasiko bihurtu den «HUHEZINEMA» ere egin zen. Urtero bezala, pertsona ezagunek parte hartu zuten ekitaldian.

Gure ikasleek Euspot txapelketan parte hartu zuten; VI. Euskarazko Eztabaida Txapelketan ere parte hartu zuten, eta Ikus-entzunezko Komunikazio Gradu ikasleek irabazi zuten sari nagusia.

Ikasleak orientatzeak leku garrantzitsua du bereziki laugarren mailan. Hainbat saio eskaini dira, bai lan-esparruan hemen zein mundu zabalean sartu ahal izateko eta bai ikasten jarraitzeko. Horretarako, Euskal Herriko hainbat hezkuntza-eragile eta komunikazio-aditu izan dugu Fakultatean.

## **HEZKUNTZA-GRADUAK (ONLINE MODALITATEA / MODALITATE ERDIPRESENTZIALA)**

2018-2019 ikasturtean, 84 ikasle berri izan ditugu eskaintza erdipresentzialean.

Hiru eskaintza izan dira martxan ikasturte honetan:

### **1. EGOKITZE-IKASTAROAK**

Egokitze-ikastaroen seigarren edizioa egin da 2018-2019 ikasturtean. Aurretik diplomadunak zirenei gradu-titulua lortzeko aukera ematea izan da helburua. Gradu ikasketek graduondokoa ahalbidetzen dute, eta, gero, doktorego-ikasketak egitea. Beste alde

batetik, aukera zabaltzen dute lan-merkatuari begira. Ikasketa hauen hartzaila irakaslea izaten da. Hainbat forotan eman da eskaintzaren berri: webgunean, sare sozialetan, irratian, ate irekietan edo sarrera libreko egunetan...

## 2. BIGARREN GRADUA / AIPAMENA

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan graduatuei zuzendutako eskaintza da. Eskaintza ezberdina izan da ikaslearen helburuen arabera:

| Bigarren Gradua lortzeko   | HHtik LHra         | LHtik HHra                               |
|----------------------------|--------------------|------------------------------------------|
| Bigarren Aipamena lortzeko | HH – HH<br>HH - AH | LH – LH<br>LH – AH<br>LH – HB<br>LH – HF |

## 3. HEZKUNTZA-GRADUAK ONLINE

Modalitate honen bidez, hezkuntza-graduak (Haur eta Lehen Hezkuntza) online eta euskaraz lortzeko aukera eskaini nahi izan da.

Hainbat kolektibori zuzenduta dago eskaintza hau:

- Aurretik goi-mailako ikasketak eginda daudenei (diplomadun, lizentziadun, ingeniari edo arkitektoei).
- Helduentzako unibertsitateko sarrera-proba gainditu dutenei.
- Lanbide Heziketako goi-mailako moduluak (hezkuntza alorrekoak) + 5 urteko eskarmentua dutenei.
- Goi-mailako kirolariei.

Hiru modalitateen datuak:

|                            | Ikasle berriak (LH/HH) |
|----------------------------|------------------------|
| Egokitze-ikastaroak        | LH:5 HH:1              |
| Bigarren gradua / aipamena | LH:43 HH:16            |
| Online graduak             | LH:9 HH:10             |

Eskaintza hauetan ikasturtean izandako helburuak honako hauek izan dira: irakasleen prestakuntzan sakontzen jarraitzea, MDB2025 proiektua online modalitateara ekartzea, eta eskaintzen hedapena egiten jarraitzea. Katalogo berriak egin dira, eta webminar formatuko informazio-saioak antolatuta.

Ikasle berrien harrera-planean urratsak egin dira, «0 erronka» formatuko sarrera batekin. Modu honetan lortu nahi da ikaslea HUHEZIKo hezkuntza-proiektuan kokatzea, online-modalitatean ikasketak egitera bideratzea, ikasketa-planak ezagutzea, eta plataformaren erabilera trerbatzea.

Irakasleekin, berriz, ikasgaien diseinuak hobetzeko eta Web 2.0 tresnen erabilera egokian trebatzeko xedez gauzatu dira prestakuntza-jarduerak, eta, hainbat kasutan, banakako formakuntza-planak diseinatu dira.

Mugikortasunari dagokionez, graduko azken ikasturtean praktikak Europan edo Ameriketara egiteko aukera eman zaie ikasleei Erasmus programaren bidez. Orotara, 4 ikasle izan ditugu Ameriketara eta 3 Europan.





## UNIBERTSITATE-MASTERRAK

2018-2019 ikasturtean, HUHEZIn, 85 ikasle izan ditugu unibertsitate-masterretan.

**BERRIKUNTZA DIDAKTIKO METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA KUDEAKETA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN (BERRIMET) UNIBERTSITATE-MASTERRA** (*online eskaintzen da osorik*)

Ikasle aldetik, kopuruak gutxi gorabehera mantentzen dira, eta bi talderekin jarraitu dugu (39 ikasle matrikulatu baitziren guztira, 21 lehen urtekoak eta 18 bigarren urtekoak). Masterraren 9. edizioa egin da: 17 ikaslek ikerketa-ibilbidea hautatu dute, eta 22 ikaslek ibilbide profesionala. Guztira Master Bukaerako 11 Lan aurkeztu dira. Ikasleen jatorriari dagokionez, 9 ikasle berri gure graduetakoko ikasleak izan dira.

**HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN (EKOMU) UNIBERTSITATE-MASTERRA**

EKOMU masterraren 9. edizioa egin da, 15 ikaslerekin (11 bigarren urtekoak eta 4 lehenengo urtekoak): ibilbide profesionalan 9 ikasle eta ikerketa-ibilbidean, berriz, 6. Edizio honetan, 6 ikaslek amaitu dute masterra, eta horietako 1ek practicuma eta Master Bukaerako Lana atzerrian egin ditu (Peru). Master Bukaerako Lan guztiak euskaraz egin dira. Horrez gain, ikasleekiko harremanak estutu dira, baita ikastetxeetako tutoreekikoak ere. Halaber, Doktorego Batzordearekin kolaboratu da orientazio-saioak antolatzeko eta proiektu estrategikoen berri masterreko ikasleen artean zabaltzeko. Horren ondorioz, masterreko bi ikaslek proiektu estrategiko bana lortu dute.

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ETA BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE ARITZEKO GAITZEN DUEN UNIBERTSITATE-MASTERRA**

Masterraren 10. edizioa egin da, aurrez aurreko modalitatean; 31 ikaslerekin (30 berriak eta

1 aurreko urtekoak) osatutako taldea aritu da lau espezialitateetan (Hizkuntza eta Literatura, Teknologia, Natura Zientziak eta Matematika, Humanitateak eta Gizarte Zientziak).

Masterraren berrikuntza-prozesuan aurrerapausoak eman dira aurreko ikasturteetan identifikatutako erronkei ekiteko. Horretarako, bi prozesu paralelo abiatu ditugu: alde batetik, modalitate presentzialeko espezialitatea eredu dualean inplementatu da, eta materia orokorrak birdiseinatu dira 2019-2020 ikasturtean berrikuntzak inplementatzeko, erronka bidezko metodologia ardatz hartuta. Bestetik, eskaintza erdipresentzialeko modalitatea sortzeko urratsak egin dira: plataformaren diseinua zehaztu, ikasketa-planaren hezurdura definitu eta lan-proposamenak diseinatu.

Koordinaziorako espazioak, talde eragilea nahiz tutore-mintegiak baliatu dira 2018-2019 ikasturtean modalitate berriak irudikatu, planifikatu, diseinatu, inplementatu, ikertu eta ebaluatzeko. Ildo horretatik, ikerketa-beka bat esleitu da espezialitateko esperientzia duala nahiz integrazio-materia ikertzeko eta hobekuntza-ildoak identifikatzeko. Horretaz gain, eredu berriak behar duen ikastetxe-sarea hedatzeko, bilerak egin dira hiru sareetako (sare publikoa, ikastolak eta kristau-eskolak) ikastetxeekin.

Eskaintza erdipresentzialeko eredu irudikatzeko eta egituratzeko, masterreko koordinatzaileek eta talde eragileko kideek aholkularitza jaso dute.

Eredu presentzian, tutore akademikoak zein ikastetxeak tutoretza-rolan trebatzeko jardunaldiak antolatu ziren, 2018ko azaroaren 6an, baita Moodle plataforman ikastaro bat sortu ere. Ekainaren 12an, ikasturtea ixtea eta formakuntza eskaintzea xede, beste jardunaldi batzuk antolatu ziren, eta, HUHEZiko tutoreek parte hartzeaz gain, ikasleek eta Lleidako Unibertsitateko hainbat irakasleek, tutorek nahiz ikasleek ere hartu zuten parte.



Azkenik, eredu berriaren eraikuntzan elkarlanean aritu gara Lleidako Unibertsitatearekin eta Andorrako Unibertsitatearekin: Lleidako Unibertsitatean antolatutako jardunaldietan parte hartu genuen, eta eredu presentziala aurkeztu eta eredu horren esperientziatik eratorritako indargune eta erronkak irudikatu, Bigarren Hezkuntzako masterrean horiek guztiak gainditzeko.

# ADITU-TITULUAK

---

Bost aditu-titulu eskaini dira ikasturte honetan: Kooperatibismoko unibertsitate-aditua; KoopFabrika: Ekintzailletza Sozial Kooperatiboa eta Ekonomia Soziala unibertsitate-aditua; Irakaslea Haur Hezkuntzako Berrikuntzan unibertsitate-aditua; Euskal Kulturgintzaren Transmisioan unibertsitate-aditua; eta Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak unibertsitate-aditua.

## **KOOPERATIBISMOAN UNIBERTSITATE-ADITUA**

Kooperatibismoko aditu-tituluaren 11. edizioa egin da ikasturte honetan. 26 ikaslek hartu dute parte, guztiak kooperatibetako ordezkariak. Kooperatibismoaren sustapena eta ideia kooperatiboaren transmisioa ipar duen prestakuntza-eskaintza da, eta ikasleari ezagutza teoriko-praktiko sendoa eskaintzea du helburu, errealitate kooperatiboa ulertzeko eta ingurune kooperatiboak indartu eta sustatzeko. Mondragon Taldeko Gestio Sozialaren eta HUHEZIKO LANKI ikertegiaren arteko lankidetzaren emaitza da.

## **KOOPFABRIKA: EKINTZAILLETZA SOZIAL KOOPERATIBOKO ETA EKONOMIA SOZIALEKO UNIBERTSITATE-ADITUA**

Kooperatiba Fabrika programaren 3. edizioa gauzatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean. Mondragon Unibertsitateko LANKI ikertegiak eta Olatukoop-ek antolaturiko egitasmoa da, eta ekintzailletza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzeko helburua du.

2018-2019 ikasturtean, 66 parte-hartzaile izan ditu; ekintzailletza sozial kooperatiboaren eta garapen komunitarioaren gaineko 40 proiektu sortu dira; eta 21 bidelagunen taldea osatu da.

## **IRAKASLEA HAUR HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZAN UNIBERTSITATE-ADITUA**

Ikasle kopurua 10ekoa izan da. Asteburuetan izan dira klaseak, eta oso garrantzitsuak izan dira landetxe batean egindako egonaldiak, horien bidez edukien lanketa eta bizi-esperientzia sakona elkartu baitira. Esperientzia eraginkortzat jo dute formatzaileek zein ikasleek: ikusi dute aldatu direla, haien praktikan eraldaketa gertatu dela, pertsonalki eta profesionalki aberastu direla, eta partaideen bitartez ikastetxei ere ekarpena egin dietela.

## **EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOAN UNIBERTSITATE-ADITUA**

EKTren 7. edizioan 26 ikasle izan ditugu. Asteburuetan egin ditugu saioak, hilean behin, larunbat goizetik igande eguerdira bitartean. Aurreko edizioetan bezala, aurtengo programa berria izan da, urtero berritu egiten baita. Erronka da oreka lantzea sortzaileen, generoen, ikertzaileen, pentsalarien eta kultura-kudeatzaileen artean. Gainera, ardatza ez da gela barruko lana soilik; izan ere, ikasleak ere hizlari bihurtzen dira, eta asteburuetako dinamikak barnetegi-kutsua edo intentsitatea ere ematen dio. Aurtengo berrikuntzetako bat izan da Kataluniari begiratzea, beste kultura-sistema bateko esperientziak ekartzea. Ikasle ohiak ere gonbidatu dira: bada jarrera harreman-sare horri jarraipena emateko. Hedabideekin lanean jarraitu da (Goiena eta Euskadi Irratia): EKTko materialak Nahieran zerbitzuan egoteko konpromisoa hartu da.

## **HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIA-KUNIBERTSITATE-ADITUA**

4. edizioa 2018ko udazkenean gauzatu zen. 12 hizkuntza gutxiagotutako 18 partaide izan dira

gurean, Ekuador, Guatemala, Mexiko, Kolonbia, Brasil, Txile, Bolivia eta Marokotik etorrita. Garabiderekin elkarlanean antolatutako titulazioa da, eta kooperazio linguistikoa du xede: edizio honetan ere prestakuntza eskaini zaie munduko 12 komunitate linguistiko minorizatutako eragileei hizkuntza biziberritzeko estrategia orokorretan prestatzeko, bereziki euskara berreskuratzeko estrategietan garatutako esperientzietan oinarri hartuta. Ikastera eta ikustera etorri dira, baita haien esperientziak hemengo eragileekin eta herritarrekin

partekatzerara ere. Eta aditu-titulua eskuratzeko azken lanak haien herrialdeetan eragiteko proiektuak izan dira. Horretarako, hartzailleak jatorrizko herrietako hizkuntzaren inguruko eragileak izan dira, haien testuinguruetara itzultzerakoan eragin biderkatzailea izan dezaketenak: hizkuntzen biziberritzean eragina duten erakunde sozial eta indigenetako ordezkariak, eta hezkuntzan, komunikabideetan, hizkuntza-barnetegietan eta hizkuntza-sustatzaile lanetan dabiltzan partaideak etorri dira.

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

LANKI ikertegiak **kooperatibismoaren gaineko prestakuntza-saioak** eskaintzen ditu MONDRAGONeko Gestio Soziala sailarekin lankidetzan. Kooperatibetako askotariko hartzaillei organoetako (Kontseilu Errektore, Kontseilu Sozial eta Zuzendaritza Kontseiluko) kideei eta bazkide guztiei zuzenduriko saioak dira. Oro har, kooperatibismoaren ezaugarrietan sakontzea eta kooperatibismoa sustatzea dute helburu.

2018-2019 ikasturtean zehar 54 formakuntza-saio egin dira (guztira, 432 formakuntza-ordu eta 918 parte-hartzaile). Aipatzekoa da RPK kooperatibako bazkideekin egindako hausnarketa kooperatiboko saioak.

«Training program in Basque culture and cooperativism» ikastaroa egin dugu, eta The Evergreen State College-ko 14 ikasle izan ditugu

gurean 2019ko maiatzaren 15etik ekainaren 4ra bitartean. Neurria egindako ikastaro honen helburua bikoitza izan da: batetik, Euskal Herriaren eta euskal kooperatibismoaren oinarriko ezaugarriak partekatzea; eta, bestetik, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren bereizgarrietan sakontzea.

**Hezkuntzari dagokionez**, ikastetxeetatik etorritako eskaerei erantzun zaie. Eskaerak hainbat gairekin lotuta egon dira: kulturarteko hezkuntza, hezkidetzeta eta generoa, hizkuntzaren lanketa eta lanbide-heziketa. 1.256 ikasle izan ditugu programa horietan.

Eta, **ikus-entzunezko komunikazioaren eremuan**, Adobe Premier-en inguruko ikastaroa antolatu da Ulma Handling Systems kooperatibarentzat.



## IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

Fakultateko diru-sarreraren % 17,80 inguru ikerketa- eta transferentzia-jardueratik etorri da 2018-2019 ikasturtean; 1.671.667 €, hain zuzen ere. Nabarmendu beharra dago, beraz, HUHEZIKo ikerketa eta transferentziak %17,28ko igoera izan duela 2018-2019 ikasturtean, aurreko ikasturtearekin alderatuta. Lan horren antolaketa eta komunikazioa hobetzeko asmoz, **Hezkuntza Berrikuntzarako Zentroa** abian jarri dugu ikasturtean zehar. Hezkuntza Berrikuntzarako Zentroa diziplina anitzeko zentroa da, eta haren helburua zera da: askotariko zerbitzuak eskaintzea eraldaketa- eta berrikuntza-prozesuak gauzatzen laguntzeko eskolei, erakundeei eta, oro har, jendarteari. Zentroak modu sistematiko eta pertsonalizatuan erantzuten die, besteak beste, ikasteko eta irakasteko modalitate eta behar berriei, hezitzaileen profil-garapenari, digitalizazioaren erronka berriei eta erakundeetako berrikuntza-prozesu eta -proiektuei. Hezkuntza Berrikuntzarako Zentroak, lan hori bere gain hartu, eta, une oro pertsona ardatz hartuta, proposamen sortzaile eta berritzaileak erakunde bakoitzaren beharretara egokitzen ditu. Besteak beste:

- Prestakuntza eta aholkularitza erakunde bakoitzaren neurrira: irakasleen prestakuntza eta ikasteko eta irakasteko ikuspegi berrien gaineko aholkularitza.
- Erantzun berriak: aldaketa sozialekin bat egingo duten ikaste- eta irakaste-ikuspegi berrien garapena. Zera eskaintzen dugu: aholkularitza, prestakuntza gogoetatsua norbere praktika profesionalaren analisisan oinarrituta, bideoz lagundutako plataforma, NOOCak, material didaktikoak diseinatzeko laguntza...
- Ertabaida irekiak: mintegiak, tailerrak eta ekitaldiak ikaskuntza eta irakaskuntzarekiko zein gizarte-gaiekiko ikuspegi berrien gainean ezagutza berriak zabaltzeko.
- Ikerketa eta ebaluazioa: prozesuen zein proiektuen eraginari buruzko ikerketa eta erakundearentzako txostena.
- Nazioarteko sareetako elkarlana: mundu zabaleko praktika onenen erreferentziak eta, gaiaren arabera, ikastetxeek nazioarteko sareetan parte hartzeko aukera.

## Lan-arloak

HUHEZiko ikerketa eta transferentzia bi noranzkoko continuum batean kokatzen dira, ezagutzaren sorkuntzatik transferentzia teknologikora joz, eta, beraz, ikerketa- eta transferentzia-jardueren xedea ezagutza sortzea eta zabaltzea, berrikuntza sustatzea eta gizartean eragitea da. Eta, hori egiteko, ezinbestekotzat jotzen dugu unibertsitateko ikertzaileen eta erakundeetako profesionalen arteko elkarlana, guztiak baitira protagonista erantzun berrien bilaketan. Gaur egun garatzen ari garen ikerketa- eta transferentzia-proiektuen lan-esparruak Hezkuntzan, Komunikazioan eta Kooperatibismoan kokatzen dira, eta hiru lerro nagusi ditugu:

- Kooperatibismoa, autoeraketa eta giza garapen iraunkorra.
- Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturazintun eta eleaniztunetan.
- Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan.

Lerro horiek **askotariko proiektuen** bidez garatzen ditugu. Administrazio publikoak zein erakunde pribatuek finantzaturako 21 ikerketa-proiektu izan ditugu 2018-2019 ikasturtean (7 deialdi lehiakorretan lortutakoak, eta beste 14 hitzarmen edo kontratu bidezkoak). Horien artean, hauek nabarmenduko genituzke:

### Europa

- Promoting gender Balance and Inclusion in research, innovation and training (PLOTINA) (H2020, 2016-2020). MURen proiektua.
- Mainstreaming Procedures for Quality Apprenticeships in Educational Organisations and Enterprises (ApprenticeshipsQ) (Erasmus +). MURen proiektua.

### Eusko Jaurlaritza

- Kulturarekiko eta Hizkuntzarekiko pertzepzioak eta identitatearen erakuntza: HUHEZiko ikasleen

kasua.

- Hezkuntza kooperatiboaren ikerketa eta garapena (gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzarako laguntzak).

### Gipuzkoako Foru Aldundia

- Pertsonen parte-hartzean oinarritutako gobernantza kooperatiboaren markoa eta bere inplementazioa. Ikerketa-ekintza prozesua («Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa», 2018).
- Kooperatiba Fabrika: ekintzailtza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala Gipuzkoan sustatzeko programa («Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa» eta «Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2018).
- KOOPHEZI gazte eta helduen pertsona kooperatiboaren profilaren neurketa hezkuntza erakunde eta enpresetan («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2018).
- Kooperatibetan pertsonen talentua eta lurraldearekiko konpromisoa berritzeko ikerketa-ekintza parte-hartzaile proiektua («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2018).
- Talentu kooperatiboa garatzeko ikaskuntza eta ahalduntze prozesuen inguruko ikerketa eta sistematizazioa («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2018).
- Debagoieneko gizarte berrikuntza plataforma: entzute komunitarioa (Etorkizuna Eraikiz GipuzkoaLab programaren 2018ko deialdia)
- BATERATZEN 18/19: balore eta portaera kooperatibo-konstruktiboan sustapena antolakuntzen emaitzak hobetzeko («Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzea» programa, 2018).

**Transferentzia-proiektuei** dagokionez, ikasturte honetan 43 transferentzia-proiektu garatu ditugu zenbait enpresa, hezkuntza-erakunde eta saretan.

2018-2019an, honako gai hauek landu dira: berrikuntza-prozesuak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan; eraldaketa digitala eskoletan; STEAM esparruko proiektuak; ikastetxeko hizkuntza-proiektua eta hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza biziberritzeko prozesuak; arloetako hizkuntzen lanketa ikaskuntza sakonean eragiteko; ikasleen, irakasleen eta langileen profil kooperatiboaren lanketa; hezkuntza-prozesu parte-hartzaileak eta kulturartekotasunaren eta aniztasun sozioekonomikoaren kudeaketa eskoletan.

### **ARGITALPENAK ETA ZABALKUNDEA**

2018-2019 ikasturtean, guztira 51 argitalpen izan dira. Horietatik 38 dira inpaktu altuko eta ertaineko zerrendetako aldizkarietan argitaratutako artikulua. 5 liburu oso, 6 liburu-kapitulu, 9 dibulgazio-artikulu ere publikatu dituzte ikertzaileek aurten. Horietatik guztietatik 24 euskaraz argitaratu dira. Argitalpen horietan, hainbat gai jorratu dira: berrikuntza-prozesuak, digitalizazioa, eleaniztasuna, metodologiak, Haur Hezkuntzako prozesuak, ikaste-eta irakaste-prozesuak, komunikazioa eta euskal hedabideak. Nazioarteko zein estatuko kongresuetan aurkeztu diren 28 komunikazioek ere fakultateko ikerketa-lerroak elikatu dituzte.

Horrez gain, ikasturtean 15 jardunaldi eta ekitaldi antolatu dira, eta gizarteko 43 zabalkunde- edo dibulgazio-ekintzatan parte hartu dugu. Antolatu ditugun jardunaldien artean daude, besteak beste, KoLaborategiko topaketak, espiritualitatearen inguruko jardunaldia edo Hezkuntza Berrikuntzako jardunaldia.

### **HIRUGARREN ZIKLOA**

#### **Doktorego-programak**

2018-2019 ikasturtean, 27 lagun matrikulatu dira HUHEZIn bi doktorego-programetan.

**-EKINTZAILETASUNEAN,  
KOOPERATIBISMOAN ETA BERRIKUNTZAREN**

#### **KUDEAKETAN doktorego-programa:**

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearekin batera kudeatutako Ekintzailetasunean, Kooperatibismoan eta Berrikuntzaren Kudeaketan doktorego-programan, doktoregai bat egon da matrikulatuta.

#### **-BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA**

#### **HEZKUNTZAN doktorego-programa:**

Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera, Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego-programaren inplementazioa garatzen ari gara. Programa honetan, 26 doktoregai egon dira matrikulatuta, eta, epealdi honetan, doktoregai horietatik 3k egin dute beren tesiaren defentsa: Nagore Iñurrategi, Haizea Galarraga, Aroa Murciano (nazioarteko aipamenarekin). Hiru kasuetan, Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu dute.

Doktorego-programako ekinbide berezi gisa, MUK eta Vic-eko Unibertsitateak ikerketa-jardunaldi bat antolatu dugu honako helburu hauekin: doktoregaien komunikazio-trebetasunak sustatzea, bai ahozkoak eta bai idatzizkoak, beren ikerketaren emaitzak zientzialarien komunitateari eta gizarteari helarazteko gai direla bermatzeko; doktoregaiak eta doktorego-programari atxikitako ikerketa-taldeetako kideak ikerketa-esperientziak parteka ditzaten bide ematea, eta azterketa kritikoaren eta parte-hartzaile guztien ekarpenen bidez haiek aberastea; eta unibertsitate bietako ikerketa-taldeek elkarlanean garatutako ikerketa-proiektuak bultzatzea. Ikerketa-jardunaldi honetan, 2 komunikazio eta 14 poster aurkeztu ziren.

Horrez gain, doktoregaien formazioa sustatzeko asmoz, astero saioak antolatu dira haien ikertzaile-profilari laguntzeko. Doktore-programaren ibilbidean, HUHEZIn jadanik 45 doktore ditugu (irakasle-ikertzaileen % 48,39), eta horietatik 28 akreditatuta daude (% 62,22). Eta 24 lankide doktore izateko bidean daude.

**15**  
JARDUNALI  
ETA EKITALDI  
ANTOLATU  
DIRA

# EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA

**2018-2019  
ikasturteko  
sarrerak  
9.392,26 mila  
eurokoak izan  
dira, eta gastuak  
9.267,52 mila  
eurokoak.  
Beraz, aldeko  
emaitza 124,74  
mila eurokoa  
izan da.**

Ikasturte honetan egindako ohiko inbertsioak 75 mila eurokoak izan dira; finantzaketa Mondragon Taldeko FEPIetatik etorri da, eta, neurri txikiagoan, berezko funts edo propioetatik.

Balantzeari dagokionez, Egoera Balantzearen Aktibo eta Pasiboa, 2019-08-31n, 10.580,75 mila eurokoa da.

(\*) milaka eurotan

| HUHEZI ZENBAKITAN                           | 2018/2019       |
|---------------------------------------------|-----------------|
| Gradu presentzialetako ikasleak             | 901             |
| - Lehen Hezkuntza                           | 440             |
| - Haur Hezkuntza                            | 270             |
| - Ikus-entzunezko Komunikazioa              | 191             |
| <i>Blended</i> modalitateko ikasleak        | <b>195</b>      |
| Unibertsitate-masterretako ikasleak         | <b>85</b>       |
| Aditu-tituluetako ikasleak                  | <b>146</b>      |
| Doktoretzako ikasleak                       | <b>27</b>       |
| Nazioarteko mugikortasuneko ikasleak        | <b>145</b>      |
| - HUHEZItik atzerrira joandako ikasleak     | 126             |
| - Atzerritik HUHEZItira etorritako ikasleak | <b>19</b>       |
| Mantentze-aurrekontua (*)                   | <b>9.392,26</b> |
| Ohiko inbertsioak (*)                       | <b>75</b>       |
| Langileak                                   | <b>113</b>      |
| Prestakuntzan dauden ikerlariak (PIF)       | <b>10</b>       |



# KUDEAKETA- ORGANOAK

---

## ANTOLAKETA-EGITURA

---

### DEKANOA

**Begoña Pedrosa**

### ZUZENDARITZA KONTSEILUA

**Begoña Pedrosa:** Fakultateko dekanoa

**Arantza Ozaeta:** Zuzendari akademikoa

**Nagore Ipiña:** Ikerketa eta Transferentzia arloko  
Zuzendaria

**Eneritz Garro:** Hezkuntza-berrikuntza lerroko  
Zuzendaria

**Ainara Artetxe:** Hezkuntza-berrikuntza lerroko  
Zuzendaria

**Goio Arana:** Komunikazio lerroko Zuzendaria

**Ainara Udaondo:** LANKI lerroko eta Profesionalen  
Prestakuntzako Zuzendaria

**Ainhoa Leturiaga:** Administrazio eta finantza  
Zuzendaria

### KONTSEILU ERREKTOREA

**Amaia Agirre:** Lehendakaria

**Amaia Pavon:** Lehendakariordea

**Nagore Iñurrategi:** Idazkaria

### Kideak:

**Oihana Otaduy**

**Amelia Barquín**

**Miren Erdozia**

**Javier Marcos**

**Jose Ramon Zubizarreta**

**Xabier Iturralde**

**Ane Irazabal**

**Iñaki Tejedor**

**Oihane Gartzia**

# LANGILEAK

---

Hau guztia ez litzateke posible izango proiektu honetan inplikatu diren eta parte hartu duten pertsona hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

AGIRRE GARCIA **NEREA** AGIRREURRETA SERNA **ANE** ALONSO AMEZUA **IDURRE** ALVAREZ HUERTA **PAULA** ALZOLA MAIZTEGI **NEREA** AMEZUA VALERA **NAIARA** APRAIZ ANSOLA **MARIKARMEN** ARANA ARRIETA **GOIO** ARANBURU ETXEGOEN **LEIRE** AREBIOTORRE LANDETA **EUNATE** AREXOLALEIBA BITERI **JULEN** ARISTI NARBAIZA **JON** ARMENTIA GARITAONANDIA **IONE** ARRATIBEL INSAUSTI **NEKANE** ARREGI LANDA **ITZIAR** ARREGI IRIBECAMPOS **AITZIBER** ARREGI MURGIONDO **JAVIER** ARRESE ERRASTI **GOTZONE** ARRIARAN OLALDE **IÑIGO** ARRUTI ETXEBERRIA **NEREA** ARTETXE ARANAZ **AINARA** ARTETXE LAZKANO **MELTXOR** ASTIGARRAGA AGIRRE **IDOIA** ASTIGARRAGA ETXEBARRIA **EUGENIO** AZKARATE ITURBE **OXEL** AZKUE LETE **IKER** AZPEITIA EIZAGIRRE **AGURTZANE** AZURMENDI PEREZ DE ARENAZA **HAIZEA** BARANDIARAN ARTEAGA **ALEXANDER** BARANGUAN YARZA **MIREN** BARNES **JULIA DIANA** BARQUIN LOPEZ **AMELIA** BEITIA SASIAIN **LOREDI** BELATEGI UNZUETA **ONINTZA** BERGARA EGUREN **JOKIN** BIAIN BIDARTE **AMAIA** BIDEKAIN **ENKO** BIKUÑA MUNDUATE **AGURTZANE** BOLIBAR ZABALA **ANDER** BONILLA BERMEJO **MARI CARMEN** CABALLERO RAMIREZ **IZASKUN** CARPINTERO MARTIN **ANA** DIAZ BIZKARGUENAGA **KOLDO** EGAÑA CASAS **IRATXE** EGAÑA OSA **TXEMA** EGIZABAL OLLOKIEGI **DIEGO** EIZAGIRRE EIZAGIRRE **ANDONI** ESCANDON LUCEA **EUNATE** ESKIBEL MONTERO **NAGORE** ETXABURU OSA **MIKEL** FALLON **SINEAD** FERNANDEZ BUENO **AMAIA** FLORES PUGA **BEÑAT** GALARRAGA ARRIZABALAGA **HAIZEA** GALINDEZ NAFARRATE **EDURNE** GALLARDO BOLAÑOS **ENTXO** GALLETEBEITIA GABIOLA **IBAN** GALPARSORO GARCIA **ROSA MARIA** GARAGARZA LEKUBE **GARBIÑE** GARCIA BLAZQUEZ **ITZIAR** GARCIA FERNANDEZ **LETICIA** GARRO LARRAÑAGA **ENERITZ** GASTAÑAZATORRE GORROTXATEGI **IDURRE** GOIKOETXEA AGIRRE **NEKANE** GONZALEZ ARENAZA **AINHOA** GOSTIN ELORZA **ANDRES** HERNANDEZ LLONA **XABIER** IBARRONDO DEL CANTO **ASIER** IMAZ AGIRRE **AINARA** IMAZ ALIAS **OIER** IMAZ GANZARAIN **ITZIAR** IMAZ REKONDO **OIHANA** INSAUSTI AMIANO **ARIANE** IÑURRATEGI IRIZAR **NAGORE** IÑURRATEGI LEON **NEKANE** IPIÑA LARRAÑAGA **NAGORE** IRIBAS PARDO **HARITZ** IRIZAR MEZO **ASIER** JIMENEZ ARRIETA **OLAIA** KANPANDEGI BERROTARAN **ARITZ** KAREAGA IRAZABALBEITIA **ARIANE** LARRAÑAGA ELORZA **AINHOA** LARREA ARANA, **MIREIA** LARREA HERMIDA **IÑAKI** LASKURAIN BIDABURU **LEIRE** LAUZURIKA ARRONDO **ASIER** LERSUNDI PEREZ **AMAIA** LETURIAGA LETONA **AINHOA** LEZETA RUIZ DE ALEGRIA **ION** LOPEZ DE PARIZA MARTINEZ DE SALINAS **ANDREA** LOPEZ SALAS **NEREA** LOYOLA IDIAKEZ **AITZOL** MADINABEITIA MEDRANO **MONIKA** MAGUREGI SANCHEZ **ZURIÑE** MARTIARTU ZUGASTI **AMAIA** MARTIN HERNANDEZ **ALAZNE** MARTINEZ GORROTXATEGI **AGURTZANE** MATA OYANGUREN **OIHANA** MONGELOS GARCIA **ARANTZA** MUÑOZ GOIKOETXEA **MAITANE** MURCIANO EIZAGIRRE **AROA** ORTEGA SUNSUNDEGI **IGOR** OTADUY DIEZ **HEIDI** OTADUY MARAURI **OIHANA** OZAETA ELORZA **ARANTZA** PAVON ARRIZABALAGA **AMAIA** PEDROSA LOBATO **BEGOÑA** PEREZ LIZARRALDE **KARMELE** PEREZ RODRIGUEZ **ANA** PUEBLA AGIRRE **MAITANE** QUINTAS QUINTAS **MARTA** RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA **IÑIGO** RAMIREZ ROJO **IRATXE** RODRIGUEZ GARITANO **JONE** ROZAS ELIZALDE **IXIAR** RUIZ DE AZUA GALDOS **EDURNE** SAGASTA ERRASTI **PILI** SALEGI ARRUTI **EIDER** SANCHEZ MORAN **YERA** SANCHEZ MURUETA **ARITZ** SANTA CRUZ ELORZA **SIRATS** SARASUA MARITXALAR **JON** SAROBE EGIGUREN **AITZIBER** TORREALDAY GALLARRETA **AMAIA** UDAONDO ALBERDI **AINARA** URIARTE ZABALA **LEIRE** URIZAR ZUGAZAGOITIA **ANE** MIREN VITORIA GALLASTEGI **JOSE RAMON** ZABALA IBARRA **ANE** MIREN ZIA SOTO **NAIARA** ZUBEROGOITIA ESPILLA **AITOR** ZUBIA MUXIKA **JUAN JOSE** ZUBIA ZUBIZARRETA **NEREA** ZUFIAURRE ASTIGARRAGA **MIRENE**





**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

Dorleta, z/g  
20540 ESKORIATZA  
Gipuzkoa  
Tel. 943 71 41 57  
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31  
20550 ARETXABALETA  
Gipuzkoa  
Tel. 943 71 31 40

harrera.huhezi@mondragon.edu

[www.mondragon.edu/huhezi](http://www.mondragon.edu/huhezi)

ENTITATE LAGUNTZAILEA



**LABORAL**   
kutxa